

berriak Triforio-tik

131 Zkia.
2024ko Urria



araba
álava

LA COFRADÍA DE LA VIRGEN BLANCA PRESENTA EL CONCIERTO
COFRADIA DE LA VIRGEN BLANCA
ANDRE MARIA ZURIAREN KOFRADIAK
HONAKO KONZERTU HAU AURKEZTEN DU

70 ANIVERSARIO DE LA CORONACIÓN DE LA VIRGEN BLANCA

IN CORONATIONE

ANDRE MARIA ZURIAREN KOROATZEAREN 70. URTEURRENA

A CARGO DE LA
BANDA MUNICIPAL DE MÚSICA
DE VITORIA-GASTEIZ

Y DE LA
CORAL MANUEL IRADIER

9 OCTUBRE
URRIA

19:30

GASTEIZKO UDAL
MUSIKA BANDAREN

ETA
MANUEL IRADIER

ABESBATAZAREN ESKUTIK

Santa Marian izango da Andre Maria Zuriaren Koroatzearen urteurreneko kontzertua

Gasteizko Udal Musika Bandak eta Manuel Iradier Abesbatzak musika eta ahotsak batuko dituzte *In Coronatione* kontzertuan, Andre Maria Zuriaren Koroatzearen 70. urteurrena ospatzeko.

Kontzertua urriaren 9an izango da 19:30ean, eta, bertan, honako hauen kantuak entzun ahal izango dira: Whitacre, Van der Roost, Guridi, Iradier, Aramburu eta Jenkins. Programan nabarmentzekoa da Jan Van de Roosten 'Canterbury Chorale'-ren interpretazioa, Udal Bandak lehen aldiz joko baitu.

Gonbidapenak urriaren 2tik aurrera eskuratu ahal izango dituzte kofradiakideek Farolen Museoan (Zapatari kalea, 35). Publikoak oro har, berriz, urriaren 7tik aurrera eskuratu ahal izango ditu.

Katedralean eskainiko da Aitzina Folk jaialdiaren aurkezpen-kontzertua



Xuxulaka taldea izango da jaialdi hau aurkezteko hitzordu musikalean, gaixotasun arraro bati ikusgarritasuna eman eta sendabide bat ikertzeko dirua biltzeko. Kontzertua Elizpean izango da, urriaren 19an, 19:00etan.

Patxi Villen (jaialdiaren zuzendaria) eta Ainar Moreno dira Xuxulaka. Bikoteak Irlandako zelta musika tradizionalen oinarritutako errepertorioa aurkeztuko du; horrela, irlandar gaita eta whistleak joko ditu Patxi eta harpa Ainarak. Kantuen artean, Irlanda, Eskozia, Euskadi, Galizia eta Gaztelako folk doinuak dakarzkiguten konposizioak daude.

2013az geroztik, Aitzina Folk Jaialdi Solidarioaren helburua da, batetik, folk eta kultura tradizionala zabaltzea, musika, dantza eta tailerrek, eta, bestetik, gaixotasun arraro bat, ataxia telangiektasia izenekoa, ikertzeko borroka bultzatzea, Euskadin gaixotasun hori duten 3 pertsona baitaude eta 40 inguru Estatuan.

Bazkideek 945 255135 telefonora deitu behar dute urriaren 16a baino lehen, gonbidapena erreserbatzeko. Publikoak oro har sarrerak eskuratu ahal izango ditu urriaren 10etik aurrera labur.eus/xuxulaka web gunean.



Alzheimerraren Munduko Egunaren adierazpenaren irakurketa elizpean

"Zauden lekura iristen gara" lelopean, Arabako Alzheimer eta beste Dementia batzuen Elkarteak (AFARABA) lehendakariak gaixotasunaren Munduko Egunaren aldeko aldarrikapen-manifestua irakurri zuen Katedralean.

Ekitaldia irailaren 20an egin zen arkupean, eta bertan izan ziren Juan Carlos Elizalde Gasteizko elizbarrutiko gotzaina, ordezkari politikoak eta


Arabako gizarteko ordezkariak. Kanpaina-sorta batekin, AFABAK azpimarratu nahi izan zuen lehenbailehen jardutea beharrezkoa dela eta, besteak beste, gaixotasun baten diagnostikoa goiz egiteko neurriak aldarrikatu behar direla, Euskadin gaixotasun horrek 50.000 pertsonari eragiten baitie (7.000 ingururi Lurraldean). Burguko kanpai-joleez gain, Txalamako txalapartak ere entzun ziren.

Katedrala eraikitzeko erabilitako harriak

Santa Maria Katedralean egindako azterketetan, 18 harri-mota zehaztu ziren, nahiz eta presentzia handiagoa dela eta, 3 mota aipa ditzakegun. Lehenik eta behin, **Ajarteko Lumakela** daukagu. Lumakelak arroka karetsuak dira, funtsean maskorrez osatuak. Katedralean dauden harri zuri gehienak Ajarteko lumakelak dira. Harlandu bezala erabiltzen da hormetan eta zutabeetan, nabeetako plementuetan eta ia tailu guztietan.

Bigarren, **Olarizuko Kalkarenita** dago. Osaeran, kaltzita mineral nagusi gisa bereizten da, eta kuartzoarekin (%10-%25), bioklastoekin (%10-%25) eta feldespatoekin (<2%) osatzen da. Propietate geotekniko oso oneko eta alterabilitate txikiko harritzat hartzen da. Halangaitzeko kanpoko horma guztietan agertzen direnak dira.

Eta, hirugarren, **Elgeako Mendilerroko hareharria** dago. Okre (hori-laranja) eta more arteko kuartzoarenita da, eta meteorizatuta gris okre eta gris more tonuak ditu. Katedralean, Kristoren kaperan dago ondoen irudikatuta. Gainera, kontrahormetan, kanpandorrearen erlaitzean, dorrearen izkinetan eta arkupeko zoladuran eta hegoaldeko fatxadako pieza solteetan ageri da.



Katedrala, Valentziako Erkidegoko turismoa erakartzeko baliabide giltzarrietako bat

'Zatoz bidaiatzera' deitzen da Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak abian jarritako kanpaina. Bertan, Lurraldeak helmuga turistiko moduan dituen baliabide nagusiak erakusten dira, eta, horien artean, Santa Maria Katedrala.

Oraingo honetan, kanpaina aurkeztu zaie Valentziako Erkidegoko bidaia-agentzietako ordezkari, touroperadoreei eta komunikabide espezializatu, 2024ko urtarriletik abuztura bitartean Lurraldeari 16.000



turista inguru ekarri dizkion merkatua bultzatzeko.

Arabako hiriburuko baliabide berezienen katalogoan, Katedrala nabarmentzen denez, Fundazioak sus-

tapen-bidaia horretan parte hartu du irailaren 26an. Era horretan, Santa Maria Katedrala Fundazioko zuzendaria den Jon Lasa arduratu zen historia eta eskaintza zabaltzeaz, tartean bisita gidatuen programa saritua.

JARRAI GAITZAKEZU:



AbiertoPorObras



@CatedralVitoria



CatedralVitoria



Katedraldea



@catedralvitoria